

## DIRU-SARRERAK

Gazte park enpresan, hainbat diru sarrera izango ditugu behin proiektua martxan jarri eta gero. Lehenik eta behin, prezio finkoei begiratuz hainbat diru sarrera, lehenik, aktiboen salmentetatik, hau da, produktuak salduz. Gure kasuan aktiboen salmentak gure diru sarrera bat izango da, besteak beste, tabernan salduko ditugun elikagai eta edariei esker.

Bestelde, prezio finkoen diru sarrerekin jarraituz, merkatu-segmentuaren eta bere ezaugarri berezien arabera prezioa litzake, kasu honetan, gazteei zuzendutako esparrua izango denez, prezioa ez da altua izango, edonork eskuragarri izateko sarrera, eta horrela bezero gehiago lortzeko. Hala ere, ez du inork besteak baino gutxiago ordainduko, ez da balditzarik egongo prezioa merkeago edo garestiago izateko eroslearen profilaren arabera.

Gure beste prezio finkotako diru sarrera bat, bolumenaren arteko prezioa izango da, hau da, hilabeteko kuotak prezio bat izango du, eta egunean bertan sartu ahal izateko sarrerak beste prezio bat ordaindu beharko da. Orain, demagun, gazte asko batera apuntatu nahi direla, orduan, prezioa merketuko genuke salmentaren bolumena handiagoa izan delako, hau eginez gero diru sarrea hau dinamikoa bihurtuko zen. Azkenean, gure helburua ez da aberatsak bihurtzea, gazteentzat zerbitzu bat eskaitzea baizik. Baina, hala ere, enpresak dituen gastu guztiak jasateko beharrezkoa dugu diru sarrerak izatea.

Gure enpresak ere harpidetza aukera emango du, hilabeteko harpidetza, hiruilabetekoa eta urtekoa, prezio hauek sarrerak bakarka erostea baina errentagarriagoa izango da, baina guretzat ere onuragarria izango da, izan ere, diru-iturri seguru bat izango dugu, eremua erabiltzen ez badute ere urte edo hilabeteko kuota ordaintzen jarriatuko dute eta.

Jarraian sarreraren eta harpidetzen prezioak utziko ditugu:

Eguneko sarrera indibiduala	10€
Eguneko taldeko sarrera (gutxienez 4 lagun)	7€ (bakoitzak)
Hilabeteko harpidetza	100€
Hiruilabeteko harpidetza	250€
Urteko harpidetza	700€

Beste irabazi batzuk, publizitatearen bidez lortuko ditugu. Gazte park honetan, inguruarekin zerikusia edo interesa pizten duten enpresen publizitatea, adibidez, taberna inguruan Coca Cola edo Pepsiren publizitatea jarri dezakegu, edo koltxoneten eremuan softteeko kartel batenbat jarri deakegu (koltxoneta marka bat). Ekintza honen helburua dirua lortzeaz gain inguruko ekonomia sustatzea da, horrela, gure gunera erosle gehiago erakarriko ditugu.

Irabaziak oraindik handiagoak izateko, irabazi dinamiko bezala, marjinaren kudeaketa jarriko dugu martxan, hau da, sarreraz gain, diru kantitate txiki bat ordainduz, lekua erreserbatua izango dute eta ez dute lekurik gabe geratzeko arriskurik izango eta guk diru kantitate txiki hori lortuko dugu.

Esandako guztiagatik, gure diru-iturriak baliabide hauetatik jasoko ditugu. Gure enpresa aurrera eramanez izateko beharrezkoak izango ditugu, baina hainbat lekuetatik jasoko dugunez kapitala, gure enpresa aurrera eramatea lortuko dugula pentsatzen dugu modu jasangarri eta arrakastatsu batean.